

Buletineko gaiak:

- | | |
|---|---|
| <ol style="list-style-type: none">1. <i>IKT Guraso Eskola: maiatzak 10</i>2. <i>Truka eta bertsoak DBH4ko ikasbidaiarako</i>3. <i>Gurasoen Hezkidetza Taldea</i>4. <i>Xanistebanetako txosnako txandak</i>5. <i>Ikastola Eguna: ekainak 5</i> | <ol style="list-style-type: none">6. <i>Herri Urrats, maiatzak 8: autobusa</i>7. <i>Uztaileko udalekuetako zaintza zerbitzua</i><ul style="list-style-type: none">• <i>Eskolaz kanpoko ekintzen oharra</i>• <i>Apartekoak</i> |
|---|---|

Berri orokorrak

1. IKT Guraso Eskola: maiatzak 10

Herriko ikastetxetan, Oiartzungo Udaleko Adin Txikiko Mahaiarekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan, herriko gazteen artean **sakelakoan eta gailu digitalen erabilera arduratsua sustatzeko** lanean ari gara. Horretarako, 2015, 2017 eta 2019an hiru ikerlan egin ditugu, eta lortutako emaitzetan oinarrituta, azken urteotan zenbait ekintza jarri ditugu martxan, gurasoei zuzendutako hitzaldiak eta ikasleentzat zuzendutako formazio saioak, besteak beste.

Aurten ere bete duzue gaiari buruzko inkesta bai ikasleek bai familiek. Horretan oinarrituta, **familiei zuzendutako prestakuntza jarduera bat antolatu dugu:**

- **IKT Guraso Eskola:** mugikorraren erabilera arduratsua lantzeko xedearekin
- **Data:** maiatzak 10, asteartea
- **Ordua:** 17:00
- **Lekua:** Jantokia
- **Izen-ematea:** <https://forms.gle/yuECu95bbFpgsL1r9>

2. Truka eta bertso saioa DBH4ko ikasleen ikasbidaia laguntzeko

Oporren aurretik jakinarazi genizuen bezala, HIRU HIRUKO Truk Txapelketaren hirugarren eta azken jardunaldia egitera doaz DBH4ko ikasleak, ikasturte bukaerarako bidaia finantzatzeko. **Bihar izango da, apirilaren 30a larunbata, arratsaldeko 16:30ean ikastolako frontoian.** Sari bikainak izango dira berriz ere.



Bestalde, bidaia **finantzatzeko bertso saioa ere** antolatu dute.

- **Eguna:** Maiatzak 7, larunbata
- **Ordua:** 18:30
- **Tokia:** Madalensoro
- **Bertsolariak:** Ane Labaka, Josu Ibarguren, Alaia Martin, Jon Martin eta Amets Arzallus
- **Sarrerak 10€:** idazkaritzan, Kastro tabernan eta Txokolategian

ANIMATU! (**Atxikita dituzue bi ekimenetako kartelak, xehetasunekin**).



3. Gurasoen Hezkidetza Taldea martxan

Elkarrekin gogoeta egiteko eta eragiteko helburuz hezkidetza lantalde bat abiatu nahi dugu gurasoon artean. Ikastolan hezkidetzaren bidean ematen diren eta eman nahi diren pausoen **bidelagun** izan nahi dugu. Era berean, **guraso bezala bizi ditugun zailtasunei erantzun kolektibo bat** eman nahi diegu, horretarako formazioak, ekintzak edota hizketaldi informalak baliatuz.

Antolatzeko dago dena, beraz, animatu eta etorri **maiatzaren 3an, asteartea, arratsaldeko 16:30ean** egingo dugun lehen bilerara! Idazkaritza kanpoan elkartuko gara. **Bilera ordubetekoa** izango da.

Bertaratu ezin baduzu, baina interesa baduzu idatzi helbide honetara:

haurtzaro.hezkidetza.gurasoak@gmail.com.

4. Xanistebanetako txosnan lan egiteko izen-ematea

Txosna martxan da eta, **2 urteren ondoren, urtero bezala oiartzuarrei xanistebanetan zerbitzu txukun bat eskaintzeko asmoa dugu.**

Ikasleek oporrak hartu aurretik antolatu nahi ditugu egun bakoitzeko txandak eta aurten TABERNAN zein egunetan lana egiteko prest zaudeten jakin nahi dugu. **Guztira 150 lagun behar ditugu** txandak



osatzeko, txanda bakoitzeko 28 lagun inguru; urtero lan egiten duzuezen gain orain arte tabernan lana egin ez duzuenen partehartzea ere beharrezkoa dugu.

EGIN BEHARREKO LANAK

1) Abuztuaren 2tik 6ra:

- 1. txanda (16:00-19:00)
 - Sukaldeko lanak: janaria prestatzen hasi
 - Tabernako kamarak edariz bete
 - Mahaiak eta aulkiak prestatu
- 2. txanda (19:00-bukatu arte)
- **Oharra:** Txanda motzetan, HH-n haurrak dituzten gurasoak lehenesten ditugu.

2) **Madalenetan, Orereta Ikastolako tabernako txanda: uztailaren 21ean.** Xanistebanetan lan egitea gaizki badatorkizue, txanda honetan izena ematera animatzen zaituztegu. Madalenetan Haurtzaro Ikastolak lan egiten du hango txanda batean eta Oreretako beste batzuk abuztuaren 2an gure tabernan aritzen dira lanean, koadrilen afari egunak direlako bi egunak.

Jarraian duzue izena emateko inprimakia: <https://forms.gle/ak5tZaHaVDkZDVS7>

5. Ikastola Eguna: ekainak 5

Ikastola Egunaren data gorde agendan: **ekainaren 5ean izango da, igandea.** Bezperan, **ekainak 4 larunbata, berriz, Euskal Dantzako emanaldia** izango da.

Informazioa osatuagoa eta egitarauaren berri aurrerago emango dizuegu.

6. Herri Urrats, maiatzaren 8an

Aurten ere, udaberriarekin batera heldu da **Herri Urrats, Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko festa, Itzulera** lelopean. **Maiatzaren 8an**, maiatzeko bigarren igandean, jende ugari biltzea espero dugu **Senpereko aintziraren inguruan, izan ere Seaska egoera ekonomiko larrian dago.** Hori dela eta Haurtzaro Ikastolatik bertara joateko dei berezia egiten dizuegu. Bertaratzeko autobus zerbitzua antolatuko dugu.

Autobusa ikastolako aparkalekutik goizeko 09:00etan aterako da eta Senperetik arratsaldeko 19:00etan irtengo da. Autobuseko txartela idazkaritzan eros dezakezue: **maiatzaren 5a, osteguna, izango da azken eguna. Txartelaren prezioa 10 eurokoa da.**

Ikastolen festa honen helburua, ikastola zaleok elkarrekin euskararen eta ikastolen alde, festa giroan, eguna igarotzea da. Helburu hori bete dadin autobusez bertaratuko diren gaztetxoek gurasoen kolaborazioa ezinbestekoa dugu gai horretan, beraz gurasoei arduraz jokatzeko eskatzen dizuegu. Ikastolak autobusa antolatzen badu ere, **ez da adingabeok bertan izan dezaketen jokabideaz arduradun egingo.**

7. Uztailean, udaleku garaian, goizeko zaintza zerbitzua

Uztailean Herriko Udaleku irekiak 09:30ean hasten direnez, guraso talde batek, aurretik zaintza zerbitzu bat antolatzeko saiakera egin nahi du aurten ere. Ikastolan gela bat prestatuko litzake horretarako, zaintzarako arduradun bat aukeratu, eta 09:30ean arduradunak berak eramango litzuke haurrak dagokien lekura.

Aurrera jarraitzeko **zerbitzu horretan interesaturik zenbat guraso zaudeten** jakin nahi dugu. Asmoa ondorengoa da: gurasoen beharren baitan ordutegia finkatzea, eta arduradunaren gastuak interesa duten guraso guztien artean ordaintzea.

Zaintza zerbitzu hau interesatzen bazaizue bete ezazue inprimakia, jarraian duzuen loturan: <https://forms.gle/gEsSBWJPQbrDc4tAA>. Azken eguna **maiatzaren 10a** izango da.

Oharrak:

- Zerbitzu hau antolatzeko gutxieneko izen-emate kopurua beharrezkoa izango da.
- Interesa azaldu dutenekin maiatzaren bukaera aldera jarriko gara kontaktuan gaia zertan den adierazteko.

Eskolaz kanpoko ekintzen oharrak

1. Kirol jarduerak euskaraz

Errenteriako, Lezoko, Oiartzungo eta Pasaiako Udalek Oarsoaldeko Euskara Batzordearen bitartez, dei egiten diete eskualdeko kirol elkarteei **12 urte arteko haurrentzako kirol jarduerak euskaraz eskain ditzaten**. Oso garrantzitsua da adin tarte horretako neska mutikoei eskola orduetatik kanporako jarduerak ere euskaraz egitea. Kirola euskaraz egiteak, euren hizkuntzaren jabetze prozesuan eta



hizkuntza ohiturak finkatzeko orduan, berebiziko eragina izango du, bai haurren garapenerako bai euskarak espazioak irabazteko ere.

Ildo beretik, udalek, gurasoei arreta berezia eskatzen diete euren seme-alabentzako euskarazko jarduerak eska ditzaten eta horien aldeko hautua egin dezaten.

Atxikita duzue Oarsoaldeko eskolaz kanpoko jardueri buruzko informazio esku-orria, datuekin. **Oarsoaldeko 8-12 urteko ikasleek ikastetxetik kanpo egiten duten jarduera nagusia kirola da.** Kanpaina honen helburua euskara eta kirola uztartzea da.

Eskatu kirol jarduerak euskaraz!

2. Eskolarteko XXXIII. Mendi Lehiaketako irteera, maiatzaren 8an

- **Ibilaldi neurtua:** Lezo-Jaizkibel
- **Irteera:** 08:30ean Lezoko Gurutze Santuaren plazan (eguraldi txarra eginez gero, Saldise plazan)
- **Izen-ematea:** Orki Lezoko tabernan eta xoxolurmendikluba@gmail.com helbidean (maiatzaren 2ra arte)
- **Informazio gehiago, atxikita.**

Apartekoak

1. ETBrako programa berri baten atala grabatuko dute Oiartzunen



Oartzungo Haurtzaro ikastolako guraso estimatuak:

*Euskal Telebistarako programa berri baten atal bat grabatuko dugu Oiartzunen. Kanta zahar bat berreskuratu, horri buruzko istorioa ikasi eta herritarrei itzultzea da helburua. **Oiartzunen, 1936ko kantu bat ezagutu dugu, eta herritarren laguntzarekin plazan kantatu eta grabatuko dugu.***

*Horretarako, zuen laguntza behar dugu! Helduen laguntza behar dugu abestia kantatuko duen abesbatzarako. **Asteartean, maiatzak 3, abesbatzaren proba grabatuko dugu, eta kantua ikastera***

animatuko diren herritarrek behar ditugu! 15:00etatik aurrera grabatuko dugu Arizmendi-enean (lorategian).

Eta ostegunean, Sean, plazan abestia kantatuko dugu kontzertu txiki batean, 18:00etatik aurrera.

Grabaketak antolatzeko, zenbat jende etorriko den jakin behar dugu. **Apuntatzeko, idatzi edo deitu 609 268 037 zenbakira, mesedez. Mila esker!**

2. Soinuenean bisita gidatua

Bisita gidatu bereziaz gozatzeko aukera izango dute bihar Abaraxkako kideek Soinuenean. **Kanpoaldeko aurkezpenaren ondoren museo barruan sakelako telefonoa erabiliko dute, beraz, eraman beldurrik gabe.**

- **Ekintza:** Soinuenean bisita gidatua
- **Eguna:** bihar, larunbata, apirilak 30
- **Ordua:** 16:30

